

• Argentinako desagerraraziak •

Clarín ahaltsuaren jabea auzitan

Marcela eta Felipe Herrera Noblek –Clarín taldeko jabe ahalguztidun Ernestina Herreraren seme-alabak– DNA probak egin zituzten joan den abenduaren 30ean. Argentinako diktaduran desagerraraziei bahitutako seme-alabak izan daitezke Herrerak 1976an –irregulartasunez beteriko auzian– adoptatutako bi gazte horiek.

ÁLVARO HILARIO
PÉREZ DE SAN ROMÁN

MAYO PLAZAKO AMONEK duela zortzi urte jarritako salaketa aintzat hartuz, Roberto Marquovich epaile federalak Ernestina Herrera atxilotu zuen, agiri publikoak faltsutzea eta adin txikikoak ezkutatzea leporatuta. Clarín taldearen abokatuek lortu zuten, ordea, gogo-koago duten Carlos Bergesio epaileak ordezkatzeari Marquovich. Diktadura garaietako justiziari lotuta, zortzi urteren ostean Bergesiok ezer gutxi egin du auzia argitzeko; izan ere, Auzitegi Federalak behartuta agindu du azkenean Marcela eta Felipe DNA probak egin. Bergesioarena ez da prozedura garbia izan: batetik, probak ez ziren Durand ospitalean egin, legeak esaten duen bezala; eta bestetik, desagerrarazien familia birekin baino ez zituen datuak alderatu (Gualdero-Garcia eta Miranda-Lanoscou) haiekin odol harremanik ez dutelakoan. Proba eta lagin gehiago lortzeko eskatu zuten Amonek, Marcelaren eta Felipe DNA beste 22 sendirekin erkatzeko. Beraz, hemendik aurrerako erabakiak funtsezkoak izango dira.

Chicha Marianik, Mayo Plazako Amonak taldearen sortzaileak, betidanik pentsatu du duela 34 urte bahitutako bere biloba Clara Anahi dela benetan Marcela Herrera. 1976ko azaroaren 24an, militarrek Marianiren semearen eta errainaren etxea bonbardatu zuten, La Plata hirian. Hiru hileko Clara Anahi txikia han desagertu zen.

Camilo Cagni desagerrarazien seme eta kazetariak dio, bestalde, Durand ospitalean gordetako laginekin DNA alderatzen dutenean Clarín taldea dardarka hasiko dela: “Truzur gisa hasi zenak ezin du aurrera jarraitu, Chicha Marianik egia merezi duelako, Ernestina Herrerak gerra trofeo moduan jaso baitzituen umeak”. Bidea baina, ez da erraza izango. Mayo Plazako Amen prentsa zerbi-



Chicha Mariani. Atzean semearen, errainaren eta bilobaren argazkiak.

Nor da Ernestina Herrera?

Ernestina Herrera de Noblek (1925) Clarín taldea zuzentzen du, *holdingari* izena ematen dion egunkaria sortu zuen Roberto Noble senarra 1969an hil zenetik. Argentinako hedabideetako talde nagusia da Clarín, hainbat telebista (Canal 13, TN, Volver, Multicanal, Cablevisión), irrati (Radio Mitre, La 100) eta egunkari (*La Voz del Interior*, *Diario de Los Andes*) dituen. Nobletarrek ondo baino hobeto kudeatu dute euren indarra, beti botere politikoari atxikita, diktadura militarretan barne. Askoren ustetan, militarrei emandako zerbitzuak zirela medio jaso zituen seme-alabak Herrerak.



Ernestina Herrera seme-alabekin.

tzuko Lucia Garciaren esanetan, ez da ziurra auzitegi medikuek lortutako laginak zein Auzitegi Federalak indarrez lortutakoak Duranden ikertuko dituztenik. “Zergatik ezkutatzen dute Marcelaren inguruko guztia? Zergatik horrenbesteko asmakeria? Zertarako? Hor atzean gauza larriak daudelako”, dio biloba berreskuratu nahi duen Chicha Marianik. Auziak aurrera jarraitzen du. ■